

EUSKAL NOMINALIZAZIOARI BURUZ ZENBAIT OHAR: “ZAIL DA”, “ERRAZ DA” PREDIKATUEN ERREJIMENA

Gasteiz, 1982-III-26

Patxi Goenaga

1. Sarrera

Nominalizazio hitza aipatzen dugunean literatura dextente sortarazi duen fenomeno bat aipau ohi dugu. Hau dela eta, jakina denez, bi teoria dabilta hor zehar: batetik nominalizazio delako hori transformazio berezi bat dela diotenak. Hauentzat *zu garaiz etortzea atsegin dut* perpausoko perpaus txertatuak perpaus ‘status’a duen bezala, *zure etorrera atsegin dut* perpauscan agertzen zaigun *zure etorrera* izen sintagma ere sakoneko perpaus batetik eratorria izango litzateke. Sakonean izango litzatekeen perpausa, gutxi gora behera, honelako zerbait izango litzateke: *zu etorri zara*. Perpaus honen eta *zure etorrera* izen sintagmaren artean dugun erlazioa transformazio erregela baten bidez emango genuke aditzera. Transformazio hori da, hain zuzen, *nominalizazio*, edo agian hobeto *izenketa*, deitzen duguna. Baina bada beste hipotesi bat *zure etorrera* bezalako sintagmen sorrerari buruz. Hipotesi honek ez du inolako *izenketa* transformaziorik eskatzen: *etorrera* beste edozein izen bezalakoxea izango litzateke, funtsean. Eta *etorri* aditzaren eta *etorrera* izenaren artean dagokeen erlazioa —hain bistakoa dena berau— lexi-koian emango litzateke aditzera, erredundantzi erregela aproposen bidez. Erregela horrek esango liguke *etorri* eta *etorrera*-ren artean zer nolako erlazioa dagoen, ez bakarrik esanahiaren aldetik, baita sintaxiari dagozkion arazoei buruz ere. Lehenbiziko hipotesiari ‘transformazionalista’ deitzen diote. Bigarrenari, ‘lexikalista’¹.

Gu, jakina, gaurko honetan ez gara arazo hauetan sartuko. Ez dugu *etorrera* bezalako izenki eratorriei buruz hitzegingo, euskaraz aditz-izenaz baliatuz lortzen ditugun perpaus txertatuei buruz baizik. Aditz mugagabea duten perpausen arteko zenbaiti buruz mintzatuko gara. Eta gaia oraindik piska bat

¹ Ik. N. CHOMSKY, “Observaciones sobre la Nominalización”, in V. SANCHEZ DE ZAVALA, *Semántica y Sintaxis en la Lingüística Transformatoria*, Alianza, Madrid, 1974, 133-187 orr. Ikus daiteke, baita ere, R. JACKENDOFF, “Regularidades morfológicas y semánticas en el lexicon”, in *La teoría estandar extendida*, Cátedra, Madrid, 1979.


gehiago mugatzeko, *-TZEN* formako aditza duten perpaus txertatuei buruz arituko gara. Jakina denez, *-TZEN* formako aditza duten perpaus txertatuak eskatzen dituzten aditz nagusiak era askotakoak dira: ‘sumaketa aditzak’ (*ikusi, entzun, sumatu, sentitu, nabaritu...*), ‘ezagutza aditzak’ (*jakin, ikasi, irakatsi, ahaztu, asmatu...*), ‘aspektu kutsuko zenbait aditz’ (*ari, hasi, jarraitu...*) eta, baita *zail da* eta *erraz da* predikatuak ere. Eta, hain zuzen, gairik mugatuena berau izango delakoan, honi heldu diot. Aitortzen dut, hala ere, gairik mugatuena bada ere (luze-laburrez izango da mugatua, ez bestela) aski korapilatsua gertatzen dela, ez hainbeste euskararen beraren aldetik, teoriaren aldetik baizik. Gaur, horregatik, ez dugu agian irtenbide distiratsurik aurkituko. Arazoak begien aurrean jartzen asmatzen badugu, ez litzateke gutxi izango. Behar bada, denon artean argi pittin bat izango dugu.

2. Arazoa

Esan dugun bezala, *-TZEN* forma eskatzen duten predikatuen artean sartu behar ditugu *zail* eta *erraz*. Baina, bai *-TZE*A eta bai *-TZEN*, biak ager daitezkeenez, ba al da diferentziarik bien artean?

Predikatu hauen beste hizkuntzetako ordainek zer-esan handiak eman dituzte hizkuntzalarien artean. RAISING (‘igoera’) delako transformazioa, edo TOUGH MOVEMENT izenekoa denon gogoetan baitaude². Hemen gaudenontzat inglesa baino hurbilago daukagunez, gaztelania hartuko dugu adibidetzat. Gaztelaniaz, D’Introno-k dioenez³. (1) bezalako perpaus bat (2) egituratik sortua izango litzateke:

(1) *Estos libros son fáciles de leer*




² Lanen bat aipatzekotan, POSTAL-en *On Raising* (1974) aipatuko genuke, baina gai honetaz oso ugaria da literatura.

³ F. D'INTRONO, *Sintaxis transformacional del español*, Cátedra, Madrid, 1979, 135-140 orr. Ikus daiteke, baita ere, N. RUWET, *Théorie syntaxique et syntaxe du français*, Éditions du Seuil, Paris, 1972, 58 eta hurr. orr. Bestalde, Chomskyren *Lectures on Government and Binding* liburu berrian beste bide bat eskaintzen da. Baina azken honetan ez gara hemen sartuko.

(2)-tik (1) sortzeko, D'Intronok 'ELEVACION DEL OBJETO' deitzen duen transformazioa beharko dugu.

Euskaraz ere, era berean (3) perpausak (4) bezalako egitura izan deza-keela pentsa liteke:

(3) *Liburu hau irakurtzen erraza da*



D'Intronok deribazio hauen alde ematen dituen arrazoiak honako hauek dira:

1) Lehenbizikoa, azaleko sujetoaren eta aditz txertatuaren arteko aukera-restrizioak izango lirateke. Honela esplikatu litzateke (5) eta (6)-ren arteko diferentzia gramatikaltasunaren aldetik:

(5) **Ardo hau zaila da irakurtzen*

(6) *Ardo hau zaila da edaten*

Hau oso ondo esplikatu daiteke (4) bezalako egitura bat onartzen bada sakonean perpaus hauentzat. Sakoneko egitura honetan *ardo hau* izen sintagma *edan*-en edo *irakurri*-ren objektoa izango litzateke. Beraz, (5)-en ez-gramatikaltasunaren arrazoia (7)-ren ez-gramatikaltasunarena bera izango litzateke:

(7) **PRO-k ardoa irakurri du*

2) Bigarren argumentua antzekoa da: (1) bezalako perpausetan ager daitezkeen aditzak ezin omen daitezke iragangaitzak izan. Honela:

(8) **Este libro es fácil de caer*

(9) **Este niño es fácil de dormir*⁴

Izan ere, objektoa baldin bada 'igoarazten' duguna, nekez igoko dugu ezer, ez baldin badago zer igorik.

⁴ Noski, *dormir* aditza ±trantsitibo (edo ±iragankor) izan daiteke. Aditz hori iragankorra denean, (9) perpausa gramatikala izango da. Hortaz, ez-gramatikaltzat eman badugu, iragangaitzat hartu dugulako da.

3) Beste argumentu bat (10) bezalako perpausen ez-gramatikaltasuna litzateke:

(10) **Este libro es difícil de leer estas notas*

Eta euskaraz ere berdin:

(10') **Liburu hau gaitz da ohar hauek irakurtzen*

Aditz batek objeto bakarra izan dezake. Beraz, (10)-en ez-gramatikaltasuna (11)-ren ez-gramatikaltasunetik letorke:

(11) * $\left[\begin{array}{c} \text{PRO-k liburu hau ohar hauek irakurri} \\ \text{IS} \end{array} \right] \left[\begin{array}{c} \text{gaitz da} \\ \text{AS} \end{array} \right]$

Irakurri aditzak bi objeto izango lituzke. Beraz, ez-gramatikalki litzateke.

4) Azken argumentua semantikari dagokio:

(12) *Liburu hauek errazak dira irakurtzen*

eta (13) *Erraza da liburu hauek irakurtzea*

perpausek funtsean esanahi bera izango lukete. Eta baliokidetasun horren berri emateko biderik egokiena bientzat sakoneko egitura bera proposatzea izango litzateke: (4) bezalako bat, alegia. "Por tanto, la interpretación semántica aquí es que lo fácil consiste no en unos libros, sino en la acción, por parte de alguien, de leer esos libros. Ahora bien, la interpretación correcta de (3) (gure (2)-rena, alegia), es precisamente esta última, lo que resulta fácil no es el conjunto de libros en cuestión, sino la lectura de los mismos" dio D'Introno-k⁵.

3. Euskarak eskaintzen dizkigun bereizgarriak

Orain arte *-TZEN*-en agertzea, gaztelaniazko 'fácil de'-ren agertzea bezala, nolabaiteko transformazio baten ondorioztat eman dugu. Galde daiteke, hala ere, ea D'Intronok gaztelaniarentzat seinatzen dituen baldintzak derrigorrezkoak diren euskaraz. Ezetz dirudi. Honela dio Txillardegik:

"Era honetako perpausak: *es difícil (el) decir (...)* eta halamoduzkoak, plegu hau dute euskaraz:

[ADJETIBO MUGAGABEA] $\left[\begin{array}{c} da \\ zen \end{array} \right]$ $\left[\begin{array}{c} -tzen \\ -tzea \end{array} \right]$

Adibidez:

GAITZ da sinisten (Arrue)

ZAIL da dirua sartzen (Lujanbio)

ERRAZAGO da... aginduak gordetzen (Arrue)

ON da eskolatzea (Lafitte)

⁵ F. D'INTRONO (1979), 138 orr.

Bide beretik ere (*da/zen*)-en ordez, (*du/zuen*) erabili behar direnean:
GAITZ du sinisten
ERRAZAGO zuen etxetik joatea

Oharra: “joaten” ala “joatea”?, “-tzen” ala “-tzea”? Biak zilegi; lehenengoa usuago, agian, Bizkai aldean; eta bigarrena usuago, berriz, Lapurdi aldean”⁶.

Arejitak⁷ ere baliokidetzat ematen ditu.

Lafittek ez digu egitura honi buruzko berri handiegirik ematen baina ematen duen adibide bakarrak aditz iragangaitzak ditu:

(14) *Errech da ERORTZEN, gaitz berriz CHUTITZEN*⁸

Erdaraz –ikusi dugu– bi egitura desberdin agertzen zaizkigu infinitiboarekin:

(15) *Estos libros son fáciles de leer*

eta (16) *Leer estos libros es fácil*

D’Intronoren ustez, (15) bezalako perpausak (16) bezalakoetatik eratorriak izango lirateke, baina horretarako zenbait baldintza bete behar dira. Adibidez, mendeko perpausak objeto bat izan behar du, gero gaineko perpausaren Izen Sintagmaren lekua beteko duena. Hortaz, aditzak iragankorra behar du izan. Bestalde, mendeko perpausaren sujetuak zehaztu gabea izan behar du: PRO erakoa⁹.

Hasiera batean, euskaraz *-TZEN* agertzeko, erdarazko baldintza berak behar genituela uste nuen. Baina argi dago Txillardegik ematen dizkigun adibideen eta berehala emango ditugunen arabera, gauzak ez direla horrela. Gehiegi saiatu gabe ere zenbait adibide jaso ahal izan ditut:

(17) *Ezda erraz, cinaan, eun guzurren artian eguija bat.*
APARTEETAN (Pr. Bart. 36)

(18) *Ezda errez SINISTUTEN, Sacerdote Jaunak (...) dantzan eguiten daveela*¹⁰ (Pr. Bart. 168)

⁶ TXILLARDEGI, *Euskal gramatika*, Ed. Vascas, Donostia, 1980, 50-51 orr.

⁷ A. AREJITA, *Euskal joskera*, Zugaza, Durango, 1978, 97 orr.

⁸ P. LAFITTE, *Grammaire basque*, 1944, 216 orr.

⁹ Zeren PRO izan beharrean, ageriko izen sintagma bat badugu, orduan infinitiboa ez, subjuntiboa baizik, agertuko da perpaus txertatuan. Horrela, (15) eta (16) perpausaz gainera beste hau ere bada: *Es fácil que tú leas estos libros*. Esan beharrik ez dago, honen ordaina euskaraz *-TZA* formakoa dela, sujetoa agerikoa den guztietan normala den bezala: (*ona, zail, egoki...*) *da zu etortzea*.

¹⁰ Hau, berez, bi erataratu uler liteke: 1) *sinistea ez da erraz bezala* edo 2) *ez da erraz(ki) sinisten*.

- (19) *Errezago da, Ceruba luurragaz BATUTEN, oneec bijoc BAT EGUIEN baiño* (Pr. Bart. 156)
- (20) *"Sinisten dor" au ADIETAN arrazago zala* (P. Abarca, 113)

Egia esan, egitura hau aski mugatua da eta zenbait autorek, dirudienez, ez dute gehiegi maite: Añibarrok edo Agirre Asteasukoak, adibidez —nik ikusi dudanez behintzat, eta aitortu behar dut ez dudala xeheki aztertu puntu hau, hasieran forma bataren eta bestearen hedadurak ez baininduen gehiegi axolatzen— normalki *-TZEA* forma erabiliko dute ¹¹.

Txillardegik *-TZEN* agian usuago dela dio Bizkai aldean, *-TZEA*, berriz, Lapurdin. Egia esan, ez dut uste gauzak horrela direnik: Axularrek, adibidez, dexente erabiltzen du *-TZEN* egitura *gaitz* eta *erraz* adjetiboekin. *Gaitz*-ekin sarriago *erraz*-ekin baino, hala ere. Dena dela, bi egitura hauen banaketa autore eta euskalkietan zehar egin beharko litzateke, agian. Nik neuk ez dut izan gai honetaz autoreak xeheki aztertzeke astirik, honetan hasi nintzenean gehiago gidatzen bainintzen neure hizkuntz gaitasunaz beste inorenaz baino. Baina gero, eta bereziki txosten hau gertatzerakoan, nabaritu nuen aipatzen dudana osotasun falta. Horregatik, hemen esango dudana geroago egin daitekeen azterketa baterako bide urratze bat besterik ez litzateke izango.

Dena dela, Axularrengandik har ditzakegu zenbait adibide. Azterketa osoago baten faltan, uste dut esan daitekeela *zail(gaitz)/erraz* adjetiboak direla medio, *hiru egitura* desberdin agertzen zaizkigula. Ikus ditzagun astiroago zenbait adibide:

1) Lehenbiziko multzoan formarik hedatuena eta arruntena sartuko dugu. Normalena da mendeko perpausak *-TZEA* forma hartzea. Hona hemen zenbait adibide:

- (21) ezin dateke *gaitz*, amorio duenarentzat, *MANAMENDUEN KONPLITZEA* (Ax. 314) ¹²
- (22) *gaitz da HANDIK PITZTEN DEN SUAREN IRAUNGITZEA*: eta bai halaber *IENDEAREN IXILIK EDUKITZEA* (Ax. 263)
- (23) erraiten dute *gaitz dela IAINKOAREN ZERBITZATZEA* (Ax. 325)
- (24) *Gaitz da MIHIAREN ONGI GOBERNATZEA* (Ax. 311)
- (25) *gaitz* eta penos da, *PARABISUKO BIDE MEHARRAREN EDUKITZEA* (Ax. 311)
- (26) ea zein den *gaitzago, IANKOAREN ZERBITZATZEA, ala DEABRUAREN* (Ax. 307)

eta abar.

¹¹ Era berean, zenbait hiztunentzat ez dago *-TZEA* forma baino.

¹² Zerbaki hauek ez gaituzte liburuaren orrialdeetara bidaltzen, A. Villasanteren argitalpenetan egiten den testu banaketari dagozkion zenbakietara baizik.

Adibide hauetan denetan mendeko perpausetan izen sintagma objektua agertzen da, genitibo forman agertu ere. Sujetua, berriz, horrelako perpausetan gehienetan gertatzen den bezala, PRO erakoa izango litzateke¹³: zehaztugabeko erreferentzia izango luke baldin eta perpaus nagusian PRO hori 'kontrola' dezakeen izen sintagma bat agertzen ez bada. Adibidez, (21) perpausetan, *amorio duenarentzat* agertzen zaigunez, hau izango litzateke perpaus txertatuko PRO horren erreferentzia zein den markatuko ligukeena. Dena dela, sujetoa agertu ezinik ez dago:

(27) *Gaitz da, ITSUAK KOLOREN BERRI IAKITEA* (Ax. 325)

edo

(28) *HARAGIAK HARAGIAREN BENZUTZEA, NATURALEZAK NATURALEZAREN AZPIRATZEA, gaitz da* (Ax. 240)

Baina badirudi sujeto hori agerian dagoenean eta baita, PRO agertuaren kontrolatua dagoenean, ez dela -TZEN agertzen -TZEA baino¹⁴.

Beste konplementu batzu ere ager daitezke mendeko perpausetan:

(29) Nola den geroago *gaitzago, BEKHATUTIK ILKITZEA* (Ax. 51)

(30) Erran nahi du *gaitz dela ZERUKO LORIAN SARTZEA* (Ax. 307)

Konplementu agertze edo ez agertze horrek ez dakit zenbatetarainoko garrantzia izan dezakeen. Agian izan dezake. Eta bereziki objektua agertzeak, eta sujetoa agertzeak zer esanik ez, garrantzia duela ematen du. Txillardegik dioena gora behera, *zail da* izan beharrean *zail zaigu* bezalako zerbait bada perpaus nagusian, nekez aurkituko dugu -TZEN forma. Axularrek honako adibideak eskaintzen dizkigu:

(31) *EMAZTETATIK APARTATZEA*, hain *zeikan gaitz* eta *gaitzi* (Ax. 34)

¹³ Hots: aditz mugagabea duten perpaus txertatu hauetan sujetoa ageriko izen sintagma bat izan liteke edo izen sintagma huts bat, 'hotsik' ez duen izen sintagma bat. Honi deitzen diogu PRO/PRO hauek batzutan ez dute erreferentzia jakinik, zeharo arbitrarioa baizik, 'edozein' edo 'inor' edo antzekoren bat esango bagenu bezala. Baina gerta daiteke izen sintagma huts horrek aurretik doan beste izen sintagma baten erreferentzia bera izatea. Orduan esaten dugu PRO hori 'kontrolatua' dagoela. Arazo hauetaz luzaro mintzo da Chomsky bere azkeneko lanetan ("Filters and control"), "On Binding" eta batez ere *Lectures on Government and Binding* (1981).

¹⁴ Datu gehiago beharko genituzke, baina nere hizkuntz gaitasunari dagokionez behintzat, hori honela da. Horregatik, oso bitxia gertatzen zait Txillardegik ematen dituen adibide-tako bat: *Gaitz du sinisten*. Perpaus hau gramatikala balitz, jakina, egin berri dudana baieztapena okerra izango litzateke. Dena den, Txillardegik ematen dituen adibideen artean, batzuk badute 'aita' bat, baina beste batzuk ez, liburuaren egilea bera ez bada. Eta, hain zuzen, ahotan darabilgun perpausa (*gaitz du sinisten*) 'aitarik' gabeko horietakoa da. Nondik aterea da esaldi hori?

- (32) *plazer zaiku hartzea eta berretzea, baiña gaitz, eta gaitzi GUTITZEA, ETA BIHURTZEA* (Ax. 167)

Adibide hauei (21) perpausa erantsi beharko litzaeike.

Puntu hau ondo aztertu beharko litzateke, baina uste dut nere inpresioa zuzena dela. Bestela, esan ote daiteke (31)-ren ordean (33)-ren antzeko zer-bait?:

- (33) ? *Gaitz zeikan emaztetarik apartatzen*

Era berean, zilegi ote da (32) eta (21) perpausetan *-TZEA*-ren ordean *-TZEN* jartzea? Hortaz, badirudi perpaus nagusian kontrolatzailearen bat dagoenean, hots: perpaus txertatuko PRO horrek erreferentzia jakina duenean ez dela posible *-TZEN* agertzea. Beraz, hemen izango dugu *-TZEN* agertu ahal izateko bete beharko den baldintza bat. Formarik normalena, hortaz, eta mugarik gutxien duena, *-TZEA* izango dugu.

2) Bigarren multzo batean erdarazko 'fácil de' delakoaren parekoak diruditenak sartuko genituzke:

- (34) *Eta halatan Eskritura Sainduan konparatzen dira giristino onak, harri preziatuarekin, aditzera emateagatik giristino on ere guti dela: bataz bezain bertzeak, direla gaitz EDIREITEN* (Ax. 93)
- (35) *Bada nola isatsaz maiz iragaitzen den etxea, erraz baita GARBITZEN* (Ax. 347)
- (36) *Hura da hetika gaixto sarthua ATHERATZEN ETA ERREME-DIATZEN gaitza*¹⁵ (Ax. 65)

Hauetan, axaleko egituran behintzat, badirudi izen sintagma bat agertzen dela eta ondoren aditz sintagma bat, AS honetan *gaitz da*-ren konplementu modura agertzen delarik *-TZEN* perpausa.

Beste antzeko adibide batzu ere badira, baina izen sintagma hori agiazki agertzen den ala ez, ez dago hain garbi:

- (37) *hark eraikitzen du erbia, pitzten du sua, gogoratzen du bekhatua, iratzartzen du haragia; eta behin iratzarriz gero, (haragia) gaitz da LOHAKARTZEN*¹⁶ (Ax. 263)
- (38) *gogoa airatuz gero, gaitz da SOSEGATZEN eta bere lekhura BIHURTZEN* (Ax. 263)

3) Eta azkenik beste batzu, lehen multzokoaren parekotzat jo daitezkeenak, baina *-TZEA* gabe, *-TZEN* agertzen dutenak:

¹⁵ Ez dakit perpaus hau zeharo zuzen idatzia dagoen. Ez ote da *bezala* edo antzeko hitzen bat falta hor?

¹⁶ Hemen *X-ek haragia lohakartu* edo, ulertzen dut. Hots: *lohakartu aditz iragankortzat emanaz. Ikus 4gn. oharra.*

(39) *Ez da gaitz IHARDESTEN*

Hemen, bigarren multzoan sartu ditugunetan ez bezala, ez dago perpaus nagusian ageriko sujetorik. Hala ere, *-TZEN* agertzen zaigu. Esanahiaren aldetik, ez dut uste lehenbiziko multzokoen eta hirugarren honetakoen artean alde handirik dagoenik. Froga bezala, har ditzakegu gogoan honako bi adibideok:

(40) Eta bertzela ere *gaitz da ADITZEN ETA ERDIESTEN, nola ahal dirateien elkharrekin...* (Ax. 375)

(41) Eta *gaitz litzateke KONTATZEA, nola gobernatzen diren erleak elkharren artean* (Ax. 21)

Bi perpaus hauen artean ez dago alderik, zentzuari gagozkiola behintzat. Hala ere, lehenbiziko multzokoak kontutan hartzen baditugu, berehala konturatuko gara —gorago esan bezala— *-TZEN* ager daitekeenean *-TZEA* ere ager daitekeela, baina, alderantziz ez. Hots: *-TZEA*-ren ordez ez daiteke beti *-TZEN* jarri. Beraz, *-TZEN*-en agertzea zenbait baldintzaren mende dago. Aski dugu pentsatzea zer pasatzen den mendeko perpausaren sujetoa zehaztua agertzen bada. Ikusi bestela —eta oraingoan Axular albora uzten dugu— honako bi perpaus hauek:

(42) *Gaitz da IKASLEAK IRAKASLEARI BEHAR BEZALA ERANTZUTEA*

(43) ?? *Gaitz da IKASLEAK IRAKASLEARI BEHAR BEZALA ERANTZUTEN*¹⁷

Hortaz, *-TZEN* ager dadin, mendeko perpausaren ageriko sujetorik ezin ager daiteke. Eta, gainera, dirudienez, PRO horrek perpaus nagusian kontrolatzaierik baldin balu, orduan ere ez litzateke zilegi izango *-TZEN* agertzea. Hots: PRO horrek erreferentzia zehaztugabea izan beharko du.

Bestalde, begien aurrean ditugun adibideen arabera, badirudi *-TZEN* agertzen zaigunean, aditz honek oso “inguratzaille” gutxi, oso konplementu gutxi, ametitzen dituela bere ondoan. Bide beretik, ikusi egin beharko litzateke —baina horretan egitura hau erabiltzen dutenek dute hitza— ea (44) bezalako perpaus bat zuzena den ala ez:

(44) *Gaitz da manamenduen konplitzen*

Dena den, honelakorik ez dut aurkitu Axularrengan.

4. Berriro egiturara itzuliz

Eta zer ondorio atera daiteke hemendik? Badirudi hiru perpaus mota hauek badutela zerikusirik. Argiena, esan dudana bezala, lehenbiziko multzo-

¹⁷ Jakina, perpaus honi jarri dizkiodan galdera markek perpaus honen gramatikaltasunari buruzko nere iritzia adierazten dute. Dena den, nere presakako azterketa honetan ez dut horrelakorik aurkitu.

koen eta hirugarrenen artean gertatzen den baliokidetasuna da. Hala ere, eta esanahia alde batera utzirik, eta *-TZEN* agertzeko behar diren baldintzak zein diren ikusi ondoren, perpaus hauek duten sakoneko egitura zein den ikusten saiatu beharko genuke. Puntu hau da nerretzat ilunena eta eztabaida-garriena.

Har dezagun (45) bezalako perpaus bat:

(45) *Gaitz da IHARDESTEA*

Perpaus honen sujetoa zein da? *I HARDESTEA* dela dirudi. Hots: honelako zerbait izango genuke:

[Ihardestea]	[gaitz da]
IS	AS

Baina orduan, zein izango litzateke (46) perpausarena?:

(46) *Gaitz da IHARDESTEN*

Hemen, *I HARDESTEN* nekez izan daiteke sujeto (axaleko sujeto edo sujeto gramatikal, noski), *-N* atzizkia tartean dugularik. Baina hau ez da *gaitz* eta *erraz* bezalako adjetiboekin bakarrik gertatzen. Hor dugu *ahaztu* aditza ere, adibidez. Zein ote da (47) perpausaren sujetoa?:

(47) *EUSKARAZ HITZEGITEN ahaztu zaio*


Honen ordeaz, (48) bagenu:

(48) *EUSKARAZ HITZEGITEA ahaztu zaio*¹⁸

esanenez *euskaraz hitzegitea* dela sujetoa, baina (47)-an *euskaraz hitzegiten* sujetotzat har ote daiteke?

Behar bada, eta teoriaren aldetik oztoporik ez baldin badago, perpaus hauek denak nolabaiteko perpaus 'inpersonalak' edo, izan litezke, hots: sujetotzat gune 'huts' bat izango lukete. Horrenbestez, agian, (45) perpausak (49) egitura duela ematen badu ere,


(49)



¹⁸ Bi perpaus hauek duten esanahi desberdintasunaz ez naiz ari orain. Ik. P. GOENAGA, *Gramatika bideetan*, Donostia, 1980, 365orr.

(46) bezalako perpaus batek noizpait honako egitura duela dirudi:

(50)



Honek badu frantsesezko *il est facile de...* edo ingelesezko *it's easy to...* egituren antza. (50)-eko egitura hau harrigarri gertatuko zaio, agian, bati baino gehiagori, baina hain zuzen, badira aditz batzu sakoneko egituren bertan (50)-en antzeko egitura dutenak. Esaterako, ingelesez *begin* ('hasi') aditzarentzat Bresnanek¹⁹ egitura horixe proposatzen du. Horrelako egitura eskatzen duten aditzak nahikoa dira. Adibidez, Ruwet-ek bi sakoneko egitura gertatzen direla dio: a) [S] V X (hots: perpaus txertatua sujetoaren lekuan darama-

NP eta b) [Δ] V S X (hau da: sujetotzat Δ hutsa izango lukeena eta perpaus NP

txertatua (S) aditz sintagmaren azpian, osagarri bezala, eramango lukeena). Eta dio Ruwet-ek: "The various predicates which can occur at the surface level in the frame *il ... que S* fall into two groups whose syntactic behaviors strikingly differ in several respects"²⁰. Eta lehenbiziko egitura izango omen lukete, besteak beste, *être probable*, *être évident*, *être intéressant*, *ÊTRE DIFFICILE (à NP)* predikatuek. Ostera, bigarren egiturari erantzungo liokete *sembler (à NP)*, *paraître (à NP)* moduko predikatuek.

Hortaz, euskaraz, agian *zail / erraz* -en sujetoaren lekuan joan liteke perpaus txertatua sakonean. Hemen hizpidea eman diguten egitura hauek, hortaz, (49)-ren antzekoa izango lukete. (45) eta (46) perpausentzat bi sakoneko egitura desberdin proposatu nahi ez badira behintzat. Horrela, bi egitura ez, bat baizik, baldin badugu, (45) eta (46) bezalako perpausak transformazio bidez erlazionatuak egongo lirateke, bata bestetik eratorria litzatekeelarik. Jakina, oinarrizkoena formarik normalena izango litzateke, -TZEA forma, alegia. Zein izango litzateke transformazio hori? Ikus dezagun.

¹⁹ J. BRESNAN, *Theory of Complementation in English Syntax*, M. I. T., 1972, 117-137.

²⁰ N. RUWET, "Subject-Raising and Extraposition", in M. LUJAN & F. HENSEY (Ed.), *Current Studies in Romance Linguistics*, Georgetown University Press, Washington, 1976, 165 eta hurr. orr.

Ruwet-ek (1976) frantsesarentzat ematen dituen honako bi adibide hautetan gertatzen denaren pareko izango litzateke euskaraz behar dugun transformazioa ere:

(51) *Lire Saikaku dans le texte (n')est difficile*

(52) *Il (n')est difficile $\left\{ \begin{array}{l} * \emptyset \\ de \end{array} \right\}$ lire Saikaku dans le texte*

Euskaraz, hala ere, gauzak apur bat ilunago gertatzen dira, ez baitugu *il* edo ingelesezko *it* izenordain horien parekorik. Hortaz, bi egituren artean *extrapozizio* moduko transformazio bat izango genuke. Transformazio honek ongi zehaztu beharko luke perpaus txertatuaren sujetoa PRO denean bakarrik dela posible eta, gainera, dirudienez PRO horrek ez luke erreferentzia zehaztua izango, gorago esan dugunaren arabera. Hortaz, *-TZEN* agertzea transformazio horren ondorio bat izango litzateke. Noski, *-TZEN* agertzea ez litzateke derrigorrezko.

Gaztelaniazko 'fácil de' eta antzekoen ordaintzat eman ditugun euskal perpausak (bigarren sailean sartu ditugunak, alegia), behar bada, erdaraz bezala, IGOTZE transformazio baten ondoriotzat eman litezke. Eta funtsean gorago aipatu ditugun baldintzetan gertatuko litzateke transformazio hori: alegia perpaus txertatuko sujetoa PRO denean eta aditza iragankorra ²¹.

Extrapozizio edo bazterreratze (Josean Mujikak dioen bezala) ²² horren ondoren etorriko litzateke igotze transformazio hau. Extrapozizio horrek perpausaren IS-ren lekua hutsik uztean, libre egongo litzateke perpaus txertatuko IS objetoak bete dezan hutsune hori ²³. Horrela, ondoko perpaus honek, (53)-k alegia, (54) egitura izango luke:

²¹ Hala ere, hemen arazo bat dugu. Gaztelaniaz eskatzen dituen baldintzak ezagunak ditugu jadanik. Baina zer pasatzen da, adibidez, Xenpelaren bertso haiekin: *Gaitzak gerade umiltzen eta pakean unitzen*. Perpaus hauek ontzat ematen badira, esan nahi du euskaraz gauzak ez direla hemen agertzen ditugun bezala, zeren, bertso horietan, nik ulertzen ditudan bezala behintzat, badirudi ez dela objetoa *igotzen* sujetoa baizik. Alegia, badirudi sakonean honelako zerbait dugula:

	[gu umiltzea]	[gaitza da]
	IS	AS
eta ez,	[PRO-k gu umiltzea]	[gaitza da]
	IS	AS

Arazo bat.

²² J. A. MUJIK, "(e)LA eta beste konpletibatzaileak", Euskaltzaindiari aurkeztutako txostena.


²³ "(58) a.—*Il est difficile de rendre justice*; b.—*Justice est difficile à rendre*

(...)

Des phrases telles que (58 b) (...) s'expliquent facilement si on les dérive (...), des structures sous-jacentes à (58a)" dio N. RUWET-ok (ik. *Théorie syntaxique et syntaxe du français*, 60 orr.).

(53) *Langile horiek lana garaiz amaitzea zail(a) da*

(54)



Hemendik, extraposizio edo dena delakoaren bidez, perpaus txertatua aditz sintagmaren eskuitara pasa daiteke:

(55) *Zail(a) da langile horiek lana garaiz amaitzea*

Hemen extraposiziorik ez dela izan, ordena aldaketa soila baizik, pentsa liteke. Hala ere, (53) perpausaren ordean perpaus txertatuko sujetoa PRO erakoa duen bat badugu, posible da leku aldatze horrezaz gainera -TZEN agertzea, -TZEA-ren ordean:

(56) *Lana garaiz amaitzea zail(a) da*

(57) *Zail(a) da lana garaiz amaitzen*

Eta hemen extraposizio edo antzeko zerbait gertatu dela pentsa daiteke, -TZEN forma hori nekez izan baitaiteke perpausaren sujeto.

Urrats hau emateko, dirudienek, ez da beharrezko aditza iragankorra izatea. Zenbait adibide eman dugu lehen. Hona hemen haietako bat berriro oroigarritzat:


(58) *Erraz da erortzen, zail zutitzen*

Baina aditza iragankorra baldin bada, gorago aipatu dugun pausoa eman daiteke, hots: perpaus txertatuko objektoa perpaus nagusiaren sujetoren lekura igotzea. Hortaz, (59) perpausa eratoritzeko honako urrats hauek beharko ditugu:

(59) *Liburu hori zail da aurkitzen*


Honen sakoneko egitura, (60) izan liteke:

(60)




Hemendik, extraposizio bidez edo, (61) egitura sortuko litzaiguke ²⁴:

(61)



Eta azkenik, *liburu hori* perpausaren izen sintagmaren hutsunera igoaz, (62) egitura izango genuke:

(62)



Baina lehenago egin dugun galdera berriro egin dezagun: ondoko bi perpaus hauek esanahi bera al dute?:

(63) *Liburu hori zail da aurkitzen*

(64) *Liburu hori aurkitzea zail da*

Dena dela, *zail* edo *erraz* izan beharrean *on* edo *egoki* adjetiboekin ariko bagina, garbi legoke (63)-(64) perpausen artean egon daitekeen aldea baino mila bider handiagoa dagoela (65) eta (66) perpausen artean:

(65) *Okela hori ona da erreta jateko*

(66) *Ona da okela hori erreta jatea*

Hautan igotze transformaziorik ez genuke beharko: bakoitzaren azpian egitura desberdina izango litzateke. Gainera, zergatik dira *zail* eta *erraz*, eta hauen familiako beste bakarren batzu, bakarrik *-TZEN* forma eskatzen dutenak? Beste adjetiboekin ez dugu *-TZEN* aurkituko *-TZEKO* baizik. Beraz, hizpidea eman diguten adjetibo hauek tratu berezia eskatzen dutela dirudi. Eta tratu hori ematen saiatu gara. Ez dakit, hala ere, hemen proposatu dugun bidea zuzena den. Jakina da zenbait igoera transformazio oso badaezpada-koak direla. Euskaraz, bestalde, beste hizkuntza batzutan baino urriagoak

²⁴ Hau hobeto formulatu beharko litzateke, egitura "preserbatu" nahi baldin badugu (ik. J. EMONDS, *A Transformational Approach to English Syntax Root, Structure-Preserving and Local Transformations*, 1976).

direla dirudi. Hala ere, banaka batzu izan daitezke euskaraz ere²⁵. Eta, hain zuzen, banaka horietakoa genuke hemen proposatu duguna.

Eta amai dezadan. Ikusi dugu problemak batez ere teoria mailan sortzen zaizkigula. Hemen bide bat eskaini dut, beste hizkuntza batzuri buruzko ohiko azterketetan eskaintzen denaren antzekoa, baina behar bada froga handiegirik eman gabe. Hortaz, lantxo honek hipotesi kutsu handiagoa du erabateko froga batena baino. Hala ere, lehenbiziko bide urratze gisa, agian balio dezake. Zer esanik ez dago edozein momentutan iritiz aldatzeko prest nagoela, euskarazko datuak beste era egokiago batez esplikatzeko bidea aurkitzen bada. Gauzak esatea erraza da. Frogatzea zailago. Eta hemen, zoritxarrez, froga gutxiegi eman ditugu.

²⁵ Adibidez, lehen begiratu batean behintzat, badirudi *irudi* eta *eman* aditzetan horrelako zerbait gertatzen dela. (a) esaten badut

(a) *Andoni lapurra dela* $\left\{ \begin{array}{l} \textit{dirudi} \\ \textit{ematen du} \end{array} \right\}$

Andoni lapurra dela nekez izan daiteke *ematen du*-ren sujetoa, *-K*-rik ez duen sintagma bat nekez izan baitaiteke aditz iragankor baten sujeto. Gehiago dirudi objektua edo, dela. Hala bada, pentsa genezake, perpaus horiek inpersonalak direla, hots: izen sintagmatzat gune huts bat dutela. Eta behar bada, *igotze* transformazio bat gerta liteke hor (b) moduko perpausak sortaraziz:

(b) *Andonik lapurra dela* $\left\{ \begin{array}{l} \textit{dirudi} \\ \textit{ematen du} \end{array} \right\}$

Hala ere, hemen oztopo teoriko bat dugu, perpaus hauetan *igotzerik* balego, TENSED SENTENCE CONDITION delakoa ez baikenuke errespetatuko. Baldintza horrek balio badu, behar bada (b)-ko perpausentzat beste bideren bat aurkitu beharko dugu. Dena den, hemen ezin gara horretan hasi, arazo larriegietan sartuko ginateke eta. Baina, behar bada, *hasi* edo *ari* eta antzekoetan *igotze* transformazioren bat badugu, batez ere lehenago aipatu dugun Bresnan-en bidea ontzat ematen bada.

Beste aditz bat, alde honetatik aztertzeko modukoa, *merezi* izango. Izan ere hiru egitura aurkezten dizkigu: *merezi du etxe hori erostea* / *merezi du etxe hori erosteak* / *etxe horrek merezi du erostea*. Baina utz dezagun kontu hau hemen. Garbi dagoena da euskaraz askoz mugatuagoa dela *igotze* transformazio hau beste inguruko hizkuntzetan baino. Alde honetatik, aztertzekoa litzateke Chomskyren “move α ” delakoa zertan den euskaraz. Noski, hau oraingoz gure ikuspegitik kanpo gelditzen da. Baina heldu beharko zaio noizpait gai honi.